



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko urriaren 7an

8 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa. Horren bidez Foru Diputazioa premiatzen da egungo merkataritza-banaketari buruzko azterlan bat egin dezan, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejónen bi zentral termiko jartzeko proiektuak geldiaraz ditzan, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntzako Batzorde Nagusian izango dituen ordezkariak aukeratzeko arauak (6. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 1999ko irailean egindako bilerak (7. or.).
- 1999ko irailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (8. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Foru Diputazioa premiatzen da egungo merkataritza-banaketari buruzko azterlan bat egin dezan

«EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez Foru Diputazioa premiatzen da egungo merkataritza-banaketari buruzko azterlan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko urriaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariok emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko urriaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduak ezarritakoari jarraikiz, ondorengo mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Merkataritzako banaketak aldaketa handiak izan ditu Nafarroan, azken urteotan. Merkataritza sektorean, hainbat hamarkadatan zehar, merkataritza-eredu txiki eta familiarra besterik ez da izan. Auzoetako supermerkatuek eta, geroago, establezimendu handiek errealitate berri bat ezarri dute, eta sektorea horri egokitzuz joan da. Masen kontsumoan oinarritutako gizarte-eredu bati dagokio merkataritza eredu berri hau. Eredu hau dela eta, merkataritza traidizionalak moldatu beharra izan du aurrera egiteko; batzuetan, itxi eta jardueraz aldatu beharra izan dute. Zernahi dela, bat-bateko aldaketa honen aurrean botere publikoek arau nahiko gutxi eman dituzte, eta Nafarroan merkata-

ritzako establezimendu handiak ezartzeko proiektu berriak direla eta, lege-hutsunea dago, lehenbailehen osatu beharrekoa.

Gaur egun arte Nafarroan jarri diren merkataritzako establezimendu handiek eragin nabarmena izan dute merkataritza txikian eta Nafarroako gizartean oro har, merkataritzako eredu honek ageriko ondorio ekonomiko, sozial eta kulturalak izan baititu.

Ildo honi jarraiki, kontu jakina da beste leku batzuetan (hala nola, Katalunian, Estatu frantsesean...) halako instalazio motak ezartzea mugatzen duten arauak badaudela, eta neurri zehatzak hartu dituztela proiektu berriak gerarazteko, harik eta izanen dituzten ondorioak aztertu arte. Gainera, beste urrats bat ematen ari dira, esaterako, Estatu frantsesean: itxi behar izan ziren denda txikiak berrirekitzea sustatzen ari dira, hiri-herrietako erdiguneetan.

Horri buruzko arau gutxi daude Nafarroan eta, nagusiki, lurraldearen antolamenduarekin eta hirigintzarekin lotutako irizpideak kontuan izanik onetsi ziren. Urtarrilaren 7ko 2/1988 Foru Dekretuak eta haren ordezkioak, 154/1993 Foru Dekretuak, merkataritzako azalera handiak ezartzearen inguruko gaia parametro horietatik baino ez zuten aipatu. Orain arte, Foru Administrazioak ez du egin azterlan integralik, hots, ondokoak aztertuko lituzkeenik: auzoetako hipermerkatuak eta establezimendu handiak ezartzeak izan dituen ondorioak, bai merkataritza txikian bai sortu diren kontsumo ohitura berrietan bai herrien eta auzoen bizitzan, eta izandako ingurugiro eragina, hirigintzako antolamenduan izandako eragina...

Hori guztia dela-eta aurkeztu du gure Parlamentuko Taldeak ondorengo mozioa.

1.- Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioa premiatzen du 6 hilabeteko epean azterlan integral bat egiteko beharrezko diren lanak burutu

ditzan. Azterlana merkataritzaren egungo banaketari buruzkoa izanen da, eskualdekako azterketa eginen du, eta gaurko egoera zein etorkizunean izan litezkeen beharrak zehaztuko.

Azterlan horretan, Nafarroan egun ezarrita dauden merkataritza azalera handien azterketa espezifiko eginen da, batetik, merkataritzako sarean, enpleguan, lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan, eta biztanleen kontsumo-ohituretan izandako ondorioak ezagutu eta neurtzeko, eta, bestetik, azterlanak beste batzuk ezarri behar direla erakutsiz gero, horiek ezartzeak ekartzen ahal dituen ondorioak zehazteko. Azterlanean garrantzi berezia emanen zaio merkataritzako azalera handi horiek ezartzeak hiriarteko merkataritzan –batez ere, zentro historiko tradizionaletan– izanen duen eragina neurtzeari; helburua zentro horiek merkataritzarik gabe ez geratzea da.

Azterlana egiterakoan zerikusirik dutenen –udaletxe, merkatarien elkarte, sindikatu, auzo elkarte, kontsumitzaile elkarte eta abarren– parte-hartzerik handiena sustatu eta bermatuko da. Orobat, azterlanaren edukiaren gaineko gizarte-eztabaida eginen da, ondorioetan sakontzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioa premiatzen du, aurreko puntuan aipatu azterlan integralaren ondorioz, onetsi eta gizarte-eztabaida egin ondoren, merkataritzako establezimenduei buruzko lege proiektu bat bidal dezan Biltzar honetara, 9 hilabeteko epean. Proiektu horretan, ondoko alderdiak behintzat arautu beharko dira:

- Merkataritzako establezimendu-motak.
- Ezartzeko derrigorrezkoak diren lizentziak.
- Establezimendu hauek ezartzeak eskatzen duen lurralde-planifikazioa. Planifikazio hau egin eta gauzatzean, kontuan izan beharko dira, besteak beste, honako helburuok:

- Nafarroako merkataritzako eskaintzaren ebaluazioa, bereiziz salmentako guztizko azale-

rak, eskualdeak edo beste lurralde esparruak eta jarduera-sektoreak.

- Nafarroako biztanleria osoaren merkataritzako gastuaren ebaluazioa, lurraldeka eta gastuak epigrafeetan emanik.

- Lurralde esparru bakoitzean merkataritzako establezimenduen defizitak eta superabitak finkatzea, fakturazioaren parametro kontrastatuetatik abiatuz; horrek posible eginen du, une bakoitzean, eskaria eta eskaintza aurrez aurre jartzea.

- Eskualdeetako zentro batzuk edo horien azpiko beste zentro batzuk indartzea.

- Lurralde plangintzan hautaturiko zentroak edo merkataritzako polaritateak indartzea, lurraldeen arteko desorekak zuzentzeko.

- Merkataritzako guneen defizitak zuzentzea, hala biztanleen joan etorriak ekiditeko, bereziki eguneko erosketari dagokionez.

- Merkataritzako establezimenduak ezartzeko lurzoru erreserbak: hirigintzako planeamendua dela eta, irizpideak eta kuantifikazioa arautzea.

- Kontsumo arduratsua sustatzea, horretarako jarduketak finkatuz. Kontsumo horrek kontuan izan behar ditu ingurugiroa, langileen eskubideak, gure lurreko ekoizleekiko eta produktuekiko harremanak estutzea, eta gure kulturarekiko loturak.

- Lurralde planifikazioa egin eta gauzatzean hiritarrek izanen duten eskuhartzea arautzea.

- Arau-hauste eta zehapenen araubidea.

3.- Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioa premiatzen du –aipatutako foru lege proiektua eta horrek bere baitan izan behar duen lurralde planifikazioa onetsi bitartean– merkataritzako establezimendu handiak ezartzeko lizentziak emateari uztea, gutxienez hiru urteko epean.

Iruñean, 1999ko irailaren 27an

Foru Parlamentarioa: Felix Puyo Rebollo

Mozioa. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko urriaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariok emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko urriaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Nafarroako Demokratikoen Elkargunea" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko

192. artikuluari jarraiki, ondorengo mozioa aurkeztu dio Osoko Bilkurari.

1. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua eta Espainiako Estatuaren Gobernuak premiatzen ditu gerrillako borrokalarien –bizirik iraun zutenen eta errepresioak hil zituztenen edo heriotza naturalez zendu zirenen– espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzaten. Espediente horietan gaizkile eta bidelapurtzat jotzen dira. Parlamentuak eskatzen du, orobat, espediente hauek artxibo historiko baten –gerraren eta erbestearen oroitza gordeko duen baten– zati izan daitezela eta desager daitezela betiko Guardia Zibilaren artxiboetatik eta artxibo militarretatik.

2. Faxismoaren aurka borrokatu zireneko garai militarra aintzat hartzeko neurriak har ditzala Estatuaren Gobernuak, bere eskumenaren esparruan; horren ondorioz, herritar talde honek pentsioak jasotzea erregularizatuko da.

Iruñean, 1999ko irailaren 27an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Castejónen bi zentral termiko jartzeko proiektuak geldiaraz ditzan

«EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Castejónen bi zentral termiko jartzeko proiektuak geldiaraz ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko urriaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariok emendakinak aur-

keztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko urriaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran hari buruz eztabaidatu eta bozketa egin dadin.

Funtsezko oinarriak

Castejónen Hidrocantábrico eta Iberdrola enpresek bultzaturiko bi zentral termiko jartzeak ingurugiro afekzio ugari sortaraziko ditu bai toki jakin batzuetan (Erribera osoan) eta bai orokorrean ere.

Zentral horiek eragin zuzena izanen dute uraren kalitatean. Ebro ibaia berotzeak 25^oko tenperatura gainditzea ekarriko du; beraz, ur hori ez da egokia izanen horniduretarako. Horren guztiaren ondorioz, gorabeherak izanen dira zenbait herritako ur-eskariei erantzuteko, eta kaltetuta gertatuko dira ibaian beherako uren erabilerak: edateko ura, ureztatze ura, Tausteko Ubidea eta Ubide Inperiala.

Isuri termikoek eta maila freatikoa murrizteak arriskuan jarriko dute Nafarroako natur ondare garrantzitsuenetako bat, Ebroko ibarbasoak; hain zuzen ere, Castejónen hasi eta Tuteraraino doan 20 kilometroko ibarbasoen segida bat. Ebroko tarte horretan, Nafarroa osoko Naturgune Babestuen kontzentrazio handiena dago, eta, gainera, hartan ibai-parke bat egitea proposatzen ari da (Ebro ibaiari buruzko Tuterarako Plan Berezia).

Proiektu horiek baimenduz gero, Nafarroako Energi Planaren aurka eginen duzue; izan ere, plan horren bitartez Nafarroan kontsumitu beharreko energia elektriko guztia iturri berriztagarrien bidez autoproduzitzea bilatu nahi baitzen, urtean atmosferara 927.750 Tona CO₂ ez botatzeko. Proposatzen diren zentral horiek, ordea, urtean 4.200.000 Tona CO₂ botako dituzte atmosferara. Halaber, CO₂ko eta bestelako berotegi-gasetako emisioak lagungarri suertatzen dira gure planeta, orokorrean, berotzeko eta klimaren aldaketa ekartzeko. Zentral termikoak jartzen badira, ezin izanen ditugu bete Kioton CO₂ko eta bestelako berotegi-gasetako emisio kutsatzaileei buruz harturiko konpromisoak.

Instalazio horiek, gainera, jarduera arriskutsu batean arituko dira, eta haien kokapena ez da ino-

laz ere segurua: hurbilegi egonen dira bizigunee-tatik eta bide-, ur- eta energia-azpiegituretatik, eta istripuak izateko arriskurik ere bada.

Gainera, zentral termiko horiek jartzeak hauxe esan nahi du: bai mundu mailako akordioak, bai Europako, Estatuko eta Foru mailako legedia eta bai autonomi eta toki mailako plangintzak ere hautsi eta urratzea (Kiotoko protokoloa, Rioko Konferentzia, Kutsaduraren aurkako aurreneurri eta kontrol integratuei buruzko Europako 96/61 Zuzentaraua, Urari buruzko 10/1985 Foru Legea, Lurraldearen Antolamenduari buruzko 10/94 Foru Legea, Abeldideei buruzko 19/97 Foru Legea, uraren hornidurari buruzko 1541/1994 Errege Dekretua, Nafarroan industrialdeak eta industria jarduerak nola ezarri arautzen duen 84/1990 Foru Dekretua, zaratak sortzen dituzten jardueri buruzko 135/89 Foru Dekretua, Nafarroako Energi Plana eta Ebro ibaiari buruzko Tuterarako Plan Berezia)

Horrek guztiak ondoko mozioa aurkeztera bultzatu gaitu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

– Hidrocantábrico eta Iberdrola enpresek sustatuta Castejónen bi zentral termiko jartzeko proiektuen administrazio-prozesua geldiaraz dezan eta ez dezan zentral horiek egiteko baime-nik eman.

– Nafarroako Energi Plana oinarri harturik, energi iturri garbi eta alternatiboei (adibidez, eguzki energia) buruzko ikerketa eta garapena bultzatu ditzan.

– Energia aurrezteko eta eraginkorrago egiteko plan serio eta ausartak abiaraz ditzan, Nafarroako energi kontsumoa murrizteko eta gas kutsakorren emisioak ahal den guztian gutxitzeko.

Iruñean, 1999ko irailaren 30ean

Foru Parlamentarioa: Félix Puyo Rebollo

H Saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntzako Batzorde Nagusian izango dituen ordezkariak aukeratzeko arauak

Nafarroako Parlamentuaren Mahaiak, 1999ko urriaren 4an eginiko bilkuran, Bozeramaileen Batzarraren Akordioa eta gero, honako Erabaki hau hartu zuen besteak beste:

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia arautzen duen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak, bere 4. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letran xedatzen du Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia osatuko dutela, besteak beste "Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen bi kidek, Batzordeak berak aukeratuak".

Iragan ekainaren 13an Nafarroako Parlamentua osatzeko hauteskundeak egin zirenez, aipatu foru lege horretako 6. artikuluekin bat etorritik, bidezko da Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluko bere ordezkariak izenda ditzan, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak irailaren 20an egindako idatzian adierazi bezala. Hartara, beharrezkoa da izendapen hori arautuko duten arauak onestea.

Horrenbestez, ERABAKI DA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntzako Batzorde

Nagusian izango dituen bi ordezkariak aukeratzeko ondorengo Arauak onartzea:

1go. Aukera Hezkuntza eta Kultura Batzordeko kide diren foru parlamentarioen artean egingo da, txartelen bidezko isilpeko bozketa eginez.

2garren. Bi ordezkariak aldi berean aukeratu dira, eta bete beharreko ordezkari-postu adina izen idatzi ahaliko du paperean Batzordeko kidea den foru parlamentario bakoitzak.

3garren. Botorik gehien ateratzen dituzten bi parlamentarioak izango dira aukeratuak.

4garren. Posturen batean berdinketarik gertatuz gero, hurrenez hurreneko bozketak egingo dira berdinketa hautsi arte.

5garren. Hautagaiak Hezkuntza eta Kultura Batzordeko mahaiari aurkeztuko zaizkio hautaketa eginen den bilkura hasi orduko.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 1999ko urriaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1999ko irailean egindako bilerak**MAHAIA**

14an:

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

13, 20 eta 27an.

FORU ARAUBIDE BATZORDEA

16an:

- Foru Araubide Batzordea eratzea.
- Mahaikideak hautatzea.

28an:

– Lehendakariaren agerraldia, Estatuak Foru Lege baten kontra aurkeztu duen errekursoaren berri eman dezan; hain zuzen ere, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko Foru Legearen kontrako errekursoaren berri.

EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

16an:

- Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea eratzea.
- Mahaikideak hautatzea.

28an:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

16an:

- Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordea eratzea.

- Mahaikideak hautatzea.

21ean:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

16an:

- Toki Administrazioiko Batzordea eratzea.
- Mahaikideak hautatzea.

22an:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Toki Administrazio Kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

16an:

- Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordea eratzea.
- Mahaikideak hautatzea.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

16an:

- Hezkuntza eta Kultura Batzordea eratzea.
- Mahaikideak hautatzea.

OSASUN BATZORDEA

17an:

- Osasun Batzordea eratzea.
- Mahaikideak hautatzea.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

17an:

- Herrilan eta Azpiegitura Batzordea eratzea.
- Mahaikideak hautatzea.

30ean:

- Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEA

17an:

- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordea eratzea.

- Mahaikideak hautatzea.

29an:

- Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

17an:

- Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordea eratzea.

- Mahaikideak hautatzea.

23an:

- Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Industri, Lan, Turismo eta Merkataritza Kontseilariaren agerraldia, haren Departamentuaren ildo politikoen berri eman dezan.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

17an:

- Batzordea eratzea.

- Mahaikideak hautatzea.

ERREGELAMENDU BATZORDEA

17an:

- Erregelamendu Batzordea eratzea.

- Mahaikideak hautatzea.

1999ko irailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda**1ean:**

- «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Nafarroako Gobernuak Lehendakaria ager dadila, Nafarroako osasun-sistema publikoa eraberritzeko planen berri eman dezan.

- Martzilla, Funes eta Villafrancako dermioetan zentral hidroelektriko bat sortzeari buruzko galdera, Félix M^a Taberna Monzón Foru Parlamentario jaunak egin.

- Miren Nekane Romano Igartua andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile hiru lanpostu hutsen oposizio-lehiaketarako aurkeztu zuen eskabidea osatzen du.

2an:

- Buruaz beste egiteko jokaerei eta adimen gaixoen atentzioari buruzko galdera, M^a Isabel

Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egin.

- Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gobernuak Nafarroako enpresa publikoen administrazio-kontseiluetan izandako bilerei buruzkoa.

3an:

- Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, lurzorua esleitzeko lehiaketa publikoari buruzko informazioa, etxebizitza arloko jarduera babesgarriak finantzatzeko sistema eta moduluak arautzen dituen 14/1992 Foru Legearen arabera ematen dena.

6an:

- José Luis Alli Fernández jaunaren idazkia. Uko egin dio foru parlamentario izateari.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: beharrezko izapideak egin daitezela Esteban Garijo Pérez jauna jartzeko José Luis Alli Fernández jaunaren orde.

7an:

– Idoia Carracedo Gerrikabeitia andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile hiru lanpostu hutsen oposizio-lehiaketarako aurkeztu zuen eskabidea osatzen du.

8an:

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera “Eskolatze baldintzak hobetzea” aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena.

– «Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Kontuen Ganbarak aholkularitza txostena egin dezala Nafarroako autopistari buruz.

– José M^a Aierdi Fernández de Barrena Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria ager dadila, Altsasuko industrialdearen berri eman dezan.

– José M^a Aierdi Fernández de Barrena Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Ekonomi eta Ogasun kontseilaria ager dadila, Foru Komunitateko eskualdeak 2. helburuan sarztearen berri eman dezan.

– Nafarroako Gobernuak sozietate publikoekin eta parte hartutako enpresekin dituen harremanei buruzko galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena Foru Parlamentario jaunak egina.

9an:

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldearen idazkia. Informazioa eskatu dute, Noingo udal dermioaren barruan dagoen Integración de Servicios Nuevos, SL merkataritza-sozietatearen isuriek ustez eragin duten airearen kutsaduraren gainean Gobernuak egin edo agindu txosten edo azterlanei buruz.

10ean:

– «Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco» Parlamentuko Taldearen idazkia. Informazioa eskatu dute, azalera handien lurralde-ereduaren gaineko azterlanari buruz.

13an:

– Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: eskolaz kan-

poko jarduerengatik diru-kopuruak kobratzeko baimena eskatu duten ikastetxeko edo ikastetxeetako eskola-kontseiluei buruzko informazioa; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuarekin ituna dutenei buruzkoa.

– Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andrearen idazkia. Informazioa eskatu du, alegia, hauxe jakin nahi du: ikasleak nola banatzen diren Iruñeko eta Iruñerriko hainbat zentrotan.

– “4.000 eta 40.000 biztanle arteko udalen egoera ekonomikoa eta finantzieroa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Zenbait udali, aplikatutako gastuarekin ponderaturiko biztanleak izeneko aldagarriaren kontentsazio gisa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Errege Bardearen Batzordearekin hitzarmena. Egoitza berrirako ezohiko ekarpena” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Itundutako ikastetxeetan beste instalazio batzuk eraikitzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “LOGSEra egokitzeko obra txikiak itundutako ikastetxeetan” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “DBHren azken helburuak bete diren eta edukiak ikasi diren jakiteko azterlan soziologiko eta pedagogiko-koa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Karlismoaren museoa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Alergologia Atalaren leku aldaketarako obrak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Gizarte Ongizatearen Institutua eta O-NOZaren arteko gizarte eta osasun koordinaziorako programa, ekimen, proiektu eta jarduketak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Osasun-ekipamendua” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Espezialitate zentroko langileak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Espezialitate zentroaren ohiko gastuak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Nafarroako Ospitaleko langileak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Nafarroako Ospitaleko ohiko gastuak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Bideko Ama Birjina Ospitaleko ohiko gastuak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Ubarmin Klinikako langileak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Ubarmin Klinikako ohiko gastuak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Lizarrako Ospitaleko langileak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Lizarrako Ospitaleko ohiko gastuak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Tuterako Ospitaleko langileak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Tuterako Ospitaleko ohiko gastuak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– 21011-7 zenbakiko “Instalazio-berritzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– 21431-7 zenbakiko “Instalazio-berritzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Adimen-gaisoak birgaitzeko klinika eraikitzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Iruñean trenbideak egiten duen ingurua kentzeko eta estazio berria kokatzeko proiektua” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Laguntzak, plastikoak erretzeko eta kalte gutxiago eragiten dituzten pestizidak erabiltzeko” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Ohiz kanpoko kalteak, nekazaritza-aseguruak estali gabeko egitura eta laboretan” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Kontserbagintza-sektorean enpresei dagozkien antolamendu-egiturak sartzeko artikulazioa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “CONSEBROri dirulaguntza” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Burugaixotasuna izan, beren kasa moldatzeko zailtasun larria izan eta behar larrian daudenezat egoitza eraikitzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Buruko gaixotasuna duten pertsonen laguntza etxean emateko jarduketak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Burlatako Udalarekin hitzarmena. Beisbol zelaiaren finantzaketa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Transferentziak Montepio Orokorreko toki entitateei, beraien finantziatorako” aurrekontu-

lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Transferentziak Iruña, Tafalla eta Tuterako Udalei, beraien funtzionarioen montepioak finantzatzearen” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Transferentzia arruntetarako fondo orokorra” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Lurzoruaren, eraikinen eta etxebizitzaren gaineko eroslehetasun eta atzera-eskuratzeko eskubideak eta saltzeko eskaintza” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Ingurugiro-hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduerak batzuentzako dirulaguntzak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Azterlan eta lan teknikoak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Naturguneak zaintzea eta habitatako hobetzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Hiriko ingurugiroari buruzko ikerlan eta lanak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Ibaiak bideratzea eta defentsak jartzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezka-ba mendia eta beste batzuk)” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Udal jabetzako ikastetxeetan obrak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntzak. Haur Hezkuntzako 2. zikloa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntzak. Lehen Hezkuntza” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntzak. Batxilergoa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntza. Hezkuntza Berezia” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntza. Gradu ertainetako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

– “Irakaskuntza pribatuarentzako dirulaguntza. LH- 2 eta goi mailako heziketa zikloak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak egina.

